

Xabier Letona



DANI BLANCO

Lancre eta zubiak

AUZITEGI NAZIONALEAN epaitutako 40 euskal gazteak libre behar dutela aldarrikatu du gizarteko pertsona ezagunen aldarriak. Manifestuaren ezaugarri nagusia? Eskaria egiten duten pertsonen aniztasuna eta urtarilaren 11ren ondorengo elkarrizketa eta bake eskaera giroarekin bat egiten duela. Jesus Egiguren, Begoña Errazti, Ainhoa Aznarez, Mikel Aranburu, Rafaela Romero, Jose Mari Esparza, Toti Martinez de Lezea... Horiek dira orain euskal gizartea bizitzen ari den aldarrikapenaren ispilu. Ezagun da, beste giro eta garai batean Espainiako justiziak era bateko zigorrak eman ditu eta egungo testuinguruan epaiak bakerako beste urrats bat beharko luke. Hala ote?

Gazte asanbladetak bileretan parte-hartzea, kale agerraldietan izatea, prentsurrekoak egitea, kamisetak saltzea, milaka gaztek parte-hartzen duten Gazte Topaketak antolatzea... gisa horretakoa izan da epaitutako 40 gazteen jarduna eta horregatik 7 eta 9 urte arteko zigorrak eskatu ditu fiskaltzak, harentzat Segikoak direlako guztiak eta Segi ETArekin baitako gazte erakundea delako. Dena da ETA estrategia zaharraren azken aztarna zentzugabeak 2014ko epaiketa batean. Baina jadanik 2005ean hori eutsiezina bazen, are gutxiago 2014an, gero Auzitegi Gorenak hankaz gora jarri bazuen ere. 2005eko hartan epaitu zituzten Jarrai-Haika auziko beste 33 kide eta bi-hiru urteko espetxe zigorra jarri zitzaizkien gehieneri, legez kanpoko erakundeko kide izateagatik. Epaiak, aldiz, argi esaten zuen ez zirela erakunde armatuko kideak, ETako kideak. Horregatik, azkenean zigorra fiskaltzak eskatutako 280 urtetik oso



behera geratu zen. Gertatuko ahal da orain ere gisa horretako zerbait? Argudio ugari egon litezke baietz pentsatzeko. Zergatik Jarrai-Haika epaiketako kideak ez ziren erakunde terroristako kideak eta Segikoak izatearen akusatu hauek bai? Gorenak gero baietz esan arren, ez zuen zentzurik. Ea 2005eko lehen epai haren arrastorik geratzen den orain.

Horrez gain, gazteen abokatuak komisaldegiko inkomunikazioan torturapean egindako adierazpenak ez kontuan hartzea eskatu dute eta horiek gabe, fiskaltzaren akusazioak ez dira ezertan geratzen. Absolutioa beharko litzateke, baina Espainiarentzat hau gogorregia balitz, tarteko bideren bat egon daitekeela pentsa liteke. Abokatuak 1999raino egin dezaketeko jauzi, orduan Konstituzio Auzitegiak bertan behera utzi zuen HBko Mahai Nazionaleko kideen aurka jarritako zazpi urteko espetxe zigorra, desproporzionatua izan zela argudiatuz. Kontuan hartu behar da, akusatutako gazteak jadanik espetxean izan direla urtebete eta bi urte artean, eta ondorioz zigor txiki batekin kalean edo aurki ateratzekotan

gera daitezkeela. Luzea eta gogorra izan da Pierre de Lancreren sorgin ehizak diruditen makroepaiketa hauen hamarkada. Emaizak latzak izan dira, dozenaka pertsona espetxean haien jardura politiko edo enpresarialagatik, 18/98ko haiek guztiak bezala. Eta 40 gazte hauena eta gero, oraindik epaitzen ari den Herriko Tabernen auzia hor dago.

“Zubiak eraiki nahi ditugu lehen harresiak zeuden lekuan”, diote manifestuaren sinatzaileek. Tipikoa da zubiaren irudia, erabiliegia akaso, baina ez dio horregatik ederra izateari uzten, besterik gabe alde batetik bestera pasatzeko aukera eskaintzen duelako. Horretan ari da gero eta jende gehiago euskal gizartean, zubiaren batetik bestera, beste barik, zubia igarotzeak berak on egiten duelako. Ederrak dira zubiak, lurra lotzeaz gain denborak ere lotu ditzakeelako, eta hori klabea da arazotan luzaro ibili denarentzat, izan pertsona edo herria, iragane-rako joan etorrietara normaltasunez ohitu beharko duelako etorkizunera begira egon nahi duenak. ■



ARGAZKI PRESS / JUAN CARLOS RUIZ